



ANDOINGO UDALA



Andoainen Hileta zibilak gauzatu ahal izateko ordenantza ari da lantzen udal gobernua

Ezaguna da zernolako aniztasun ideolojiko, erlijioso eta kultural duen gure jendarteak. Gurea jendarte plurala da, bere ohitura eta ekitaldi sozialei dagokionez etengabe eraldatzen dena.

Andoingo Udala, erakunde publiko bezala, Estatu akonfesional eta laikoaren printzipioak gauzatzeko bermatzaile izan behar da; bizitzako aspektu guztietan. Eta heriotza bizitzako aspektu bat denez, baita haren ondotik datozen agur ekitaldiena ere.

Norbait hiltzen denean hiletak edo omenaldi zibilak egitea behar sozial batetik sortu da; alegia, omenaldi duin eta pertsonala eskaintzea inolako erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duen herritarrari. Andoingo Udalak erantzun egin behar dio geroz eta eske handiagoa dagoen behar sozial honi.

Hain zuzen, Andoainen herritar talde batek aukera hau eskaini ahal izateko urratsak proposatu eta eskatu ditu, eta udal gobernua elkarlanean ari da interesa agertu duten herritar hauekin. Zentzu horretan, udal gobernua lanean ari da hileta zibilak gauzatu ahal izateko ordenantza proposamena osatzen. Epe laburrean, gainerako alderdiei aurkezteko moduan izango da proposamena.

Andoainen, 2017ko ekainaren 7an

